DESAGERTUTAKO

LAUDIO



EGILE EZEZAGUNA / ERROKE DEUNAREN KOFRADIAREN ARTXIBOA

Kepa Sojo

DESAGERTUTAKO LAUDIO

efadós

DESAGERTUTAKO

LAUDIO

«Desagertutako Euskal Herria» bilduma
Lehen edizioa: 2026ko azaroa

Testuen ©, Kepa Sojo
Hitzaurrearen ©, Juan Carlos Navarro Ullés
Euskarazko itzulpenaren ©: Alina Rivera Prado
Argazkien ©, hainbat egile
Bildumaren ©, Efadós argitaletxea
Edizioaren ©, Efadós argitaletxea

EFADÓS ARGITALETXEA

Edison Kalea, 3A
08754 El Papiol (Bartzelona)
Telefonoa 93 673 12 12
efados@efados.cat
www.efados.cat

Jatorrizko ideia eta diseinua

Efadós argitaletxea

Lankidetza

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Azaleko argazkia

EGILE EZEZAGUNA / ERROKE DEUNAREN KOFRADIAREN ARTXIBOA

Esker-ematea

Sonia Pacios, Juan Carlos Navarro, José María Castillo, Felix Mugurutza, Santiago de Pablo, Antonio Rivera, Elena Sojo, Modesto Anda, María Jesús Pacho, Patxi Pagazaurtundua, Txus Ruano, José Antonio Sainz Varela, Cristina Gareta, Rafa Resines, Milagros Gil, Alberto Cabello, Cofradía de San Roque, Ayuntamiento de Laudio-Llodio, Fundación Sancho el Sabio, Vital Fundazioa

Artxiboak

Laudioko Erroke Deunaren Kofradiaren Artxiboa
Juan Carlos Navarro Ullésen artxiboa
Arabako Artxiboa - Photoaraba Arabako Foru
Eusko Ikaskuntza Artxiboa
Laudioko Udala Artxiboa (LUA)

Argitalpenak

Laudioko Jaietako Programak (1935, 1944, 1947, 1948, 1949, 1950, 1960, 1961, 1963, 1964, 1967, 1968,1969, 1970, 1971, 1975, 1976, 1978)
La Esfera aldizkaria (149. zk., 1916)
Mundo Gráfico aldizkaria (258. zk., 1916)
Nuevo Mundo aldizkaria (1600. zk., 1916)
Blanco y Negro aldizkaria (1478. zk., 1919)
La Hormiga de Oro aldizkaria (39. zk., 1919)

ISBN 979-13-88489-03-7
Lege-gordailua: B-18694-2026

Obra hau edozein eratan erreproduzitzeko, banatzeko, publikoki komunikatzeko edo eraldatzeko, haren titularren baimena behar da nahitaez, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jo ezazu CEDROra (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa) - www.cedro.org.

Aurkibidea

6. or.
HITZAURREA
Laudio Ibar Noblea

8. or.
SARRERA
XIX. mendeko Laudiotik 1983ko uholdeetara

12. or.
I. KAPITULUA
Urkijoko markesen itzalpean

66. or.
II. KAPITULUA
Herri industrialetik desarrollismora

102. or.
III. KAPITULUA
Industria Laudion

112. or.
IV. KAPITULUA
Laudioko auzoak

144. or.
V. KAPITULUA
Festak, erromeriak eta ospakizunak

170. or.
VI. KAPITULUA
Kultura eta kirol erakundeak

182. or.
EPILOGOA
1983ko uholdeak

184. or.
AURKIBIDE ALFABETIKOA

Hitzaurrea

LAUDIO IBAR NOBLEA

Juan Carlos Navarro Ullés · Ikertzailea eta bertako kronista

Laudioko Ibarra Aiarako Kuadrillako bost udalerrietako bat da, eta Aiarako Kuadrilla, berriz, Arabako Probintzia osatzen duten zazpi kuadrilletako bat. 37,675 kilometro koadroko azalera du, 698 eta 795 metro arteko mendiz inguratuta dago, eta Nerbioi ibaiak luzetara zeharkatzen du, itsas mailatik batez beste 120 metrora. Ez dago Antzinate Klasikoa baino lehenagoko populaziorik egon zela frogatzen duen historiaurreko aztarnarik; badira, ordea, erromanizazioaren lekukoak, gure aroko II. eta III. mendeetako hilarrien bidez. Haietan, Manes jainkoei egiten zaie dei hildako biren alde: lehenengoa Sulpicia Regalek bere senar Calpurnio Montanoren omenez jarri zuen, 60 urte zituela hila, eta «lurra arin izan bekizu» opa dio; bigarrena, berriz, Sempronia Auniak bere alaba Licinia Likoioaren omenez jarri zuen. Kristautasuna sartu zenean, hainbat santu eta deboziori eskainitako tenpluak sortu ziren. 964. urtean, Gimeno eta Marina neba-arrebek Done Bittor eta Gardeako Santiago monasterioa zuten, Laudioko auzoetako batean. 1095ean, Done Petri eliza sagaratu zen, Lope Sanchezek, Laudioko jaunak, eraiki eta babestua zen. 1541ean beste batek ordezkatu zuen, eta hura, berriz, gaur egungo elizak 1757an, bedeinkatu zutenean. XIV. mendekoa da Ermuko Andra Maria monasterioa. Eta 1551n egindako Martín Gilen inbentarioan, udalerrian zehar sakabanatutako bederatzi ermita zenbatu ziren. Gaur egun, bost parrokia eta kultua duten zazpi ermita daude. XIX. mendearen amaierara arte, nekazaritza- eta abeltzaintza- herria izan zen, nahiz eta XVI. mendetik aurrera zazpi edo zortzi zereal-errota eta burdina lantzen zuten hiru burdinola izan, urtean 3.000 kintal inguru ekoizten zituztenak. Bilbotik Pancorborako Errege Bidea berreraikitzearekin, 1774an amaituta, eta Tuteratik Bilborako Burdinbide berria 1863an inauguratu izanarekin, eraldaketa sakona jasan zuen, erabat landatarra izatetik guztiz industriala izatera. Biztanleria 1.362 biztanletik, 1820an, 21.000 biztanletik gora izatera igaro zen 1988an. Gaur egun, 18.000 biztanle pasatxo ditu, 2025eko erroldaren arabera. Pertsonaia ospetsuek beren leinuaren eta maila sozialaren lekukoak utzi zituzten dorre eta jauregien bidez. Gaur egun, aipatutako eliza eta ermitez gain, Ugarteko Dorrea eta Gardea, Katuxa, Lamuza eta Anuntzibaiko jauregiak geratzen dira.

Plaza, Laudioko gune nagusia, Konstituzio Plaza zuen izena 1910ean. Elizako dorreak ez zuen erlojurik izan 1936ra arte. Argazkian, zurezko egitura batek erdigunea hartzen du, eta Udaletxeko balkoia apainduta ageri da. Horrek adierazten du egun hartan ekitaldi publiko garrantzitsuren bat ospatzen ari zela.



EGILE EZEZAGUNA / ERROKE DEUNAREN KOFRADIAREN ARTXIBOA

Sarrera

XIX. MENDEKO LAUDIOTIK 1983KO UHOLDEETARA

Kepa Sojo · Artearen Historiako irakasle titularra (EHU) · Zinema-zuzendaria eta gidoilaria

Antzinako argazki orok une bat baino gehiago gordetzen du. Begiratzeko modu bat, paisaian bizitzeko modu bat eta gaur ezagutzen dugun herria eraiki zutenen arrastoa gordetzen ditu. Liburu honek Laudioko ikus-oroimenean barrena bidaiatzea proposatzen digu, 1895 eta 1983 artean hartutako irudien bidez. Ia mende oso bat geratu da geldirik haren orrialdeetan: kameraren aurrean ipinitako aurpegiak, desagertutako baserriak, asfaltatu gabeko kaleak, fabrikak, erromeriak eta eraldatutako txokoak. Bidaia 1895ean hasten da, Laudio landa-eremuko ibarra zenean. Lehen argazkiek Urkijoko markesen mundura hurbiltzen gaituzte; Lamuza haien presentziaren ikur izan zen, eta botere ekonomiko, politiko eta soziala ordezkatzen zuen, Errestaurazioko kazikismoari lotua. Itxurazko lasaitasun haren azpian, aldaketak iritsi ziren. Primo de Riveraren diktadurak, Bigarren Errepublikak eta Gerra Zibilak euren isla utzi zuten eguneroko bizimoduan eta kaleetan. Gatazkak gerraosteko, errepresiozko eta eskasiako etapa luze bati eman zion hasiera. 1939tik 1975era bitartean, Laudiok eraldaketa azkarra bizi izan zuen. Industrializazioak herriko paisaia eta bizimoduaren erritmoa



EGILE EZEZAGUNA / ERROKE DEUNAREN KOFRADIAREN ARTXIBOA



EGILE EZEZAGUNA / JUAN CARLOS NAVARRO ULLÉSEN ARTXIBOA

LAUDIO 1900 INGURUAN

Aurreko orrialdean 1985 inguruko Laudio ikusi genuen, Lamuzako finka handiarekin, frontoiarekin, baratzezainaren etxearekin eta negutegiarekin. Haren teilatu-terrazatik atera zen goiko argazkia, 1916koa, Done Petriko dorrea eta herrigunea erakusten dituena. Finkaren atzealdean Ibarreko eskolak ageri dira.

URAK EKARRITAKO OSPAKIZUNA

1929ko urriaren 6an, orduko Alfonso XIII.aren plazan, Arabako Probintzia Kutxak sustatutako hiru ekitaldi egin ziren. Horietako bi izan ziren Olarteko urak herria urez hornitzeko ekarri izana —hurrengo orrialdean— eta aurrezki-erakundeak Laudion ireki zuen lehen bulegoaren inaugurazioa.

aldatu zituen. Desarrollismoan, milaka migratzaile iritsi ziren lan egitera eta hemen beren etxeak eraikitzera. Haiekin Laudio handiago, askotarikoago eta langileago bat sortu zen. Industria bihurtu zen protagonista. Tximiniek, tailerrek eta pabiloiek horizontea eta belaunaldi askoren bizitza aldatu zituzten. Villosa, Aceros, Tubacex, Maderas eta beste enpresa batzuk ez ziren ekoizpen-zentro hutsak izan: haien inguruan etxebizitzak, dendak, elkarteak eta langile-borrokak sortu ziren. Eraldaketa hori auzoetan ere ikus daiteke. Areta, Gardea, Ugarte, Arraño, Latiorro eta Larrazabal nortasun propioa duten leku gisa ageri dira. Argazkiei esker, haien nekazaritza-iragana ezagutu dezakegu, baratzeen eta bideen desagerpena ikusi, eta errepideen, fabriken eta etxebizitzen aurrerapenari jarraitu. Baina Laudioko bizitza ez zen soilik lanaren eta hiri-aldaketen artean garatzen. Jaiek musika eta elkartzea ekartzen zituzten berriro kaleetara. Sanrokeak, Dolumin Barikuak, Aste Santuak, erromeriek eta auzoko jaiek debozioa, dibertsioa eta komunitate-sentimendua uztartzen zituzten. Horien guztien ondoan, Jose Arrue bezalako margolariek eta Ruperto Urquijo bezalako musikariek Laudio artearen eta musikaren bidez irudikatu zuten Laudio. Aldi berean, futbolak, txirrindularitzak, pilotak, mendizaletasunak eta bestelako kirolek kirol-kluben inguruan batzen zituzten belaunaldiak. Ibilbidea 1983an amaitzen da. Uholdeek ura, lokatza eta mina ekarri zituzten Laudio osora, eta etxeak, negozioak eta azpiegiturak suntsitu zituzten. Zoritxar hori ezin da soilik atsekabearekin parekatu. Elkartasun-olatu batek berreraikuntzaren hasiera markatu zuen, eta horrek udalerria eraldatu zuen. Zauri hartatik sortu ziren XXI. mendeko Laudio eraikitzeko oinarriak. Liburu honek ez du iragana itxi nahi, haren biztanleei itzuli baizik. Argazki bakoitza oroimenerako ate bat da, eta ondoren iritsi zirenei egindako gonbidapena. Guztiek batera album kolektibo bat osatzen dute, eta bertan Laudiok izandakoa begiztatu, gaur egun dena ulertu eta, oroimenarekin zein itxaropenarekin, oraindik izan daitekeena irudika dezake.



EGILE EZEZAGUNA / ERROKE DEUNAREN KOFRADIAREN ARTXIBOA

I. KAPITULUA

Urkijoko markesen itzalpean

XIX. mendearen amaieratik 1939ra bitartean, Laudio nekazaritzari, abeltzaintzari eta mendiei lotutako landa-ibarra izatetik Bilboko ingurunean integratzera igaro zen. 1863an Bilbo-Tutera trenbidea irekitzeak komunikazioak hobetu zituen eta merkataritza zein industria bultzatu zituen. Hirugarren Karlistaldiak (1872-1876) eragina izan zuen eskualdean eta, foruak indargabetu ondoren, Laudio administrazio-esparru berrian txertatu zen. XIX. mendearen amaieran, Urkijo familiak eragin ekonomiko, politiko eta sozial handia izan zuen Lamuzako jauregitik. XX. mendeko lehen hamarkadetan, biztanleria, zerbitzuak, elkartegintza eta bizitza politikoa hazi ziren, nahiz eta baserriak nagusi ziren oraindik. Bigarren Errepublikak mobilizazio politikoa areagotu egin zuen. 1936ko uztaileko estatu-kolpearen ondoren, Laudio euskal lurralde errepublikanoan geratu zen, tropa frankistek herria 1937ko ekainaren 19an okupatu zuten arte. Gerrak, errepresioak, erbesteak eta giza galerak haren bizitza markatu zuten 1939ra arte.



EGILE EZEZAGUNA / JUAN CARLOS NAVARRO ULLÉSEN ARTXIBOA

PLAZA 1929 BAINO LEHEN

Hogeiko hamarkadako Laudioko Kasinoa elkarte tradizionalistak ezkerreko eraikinaren bigarren solairua hartzen zuen. Lehenengoan Euzko Etxea zegoen, euskal nazionalismoaren ideologiakoa, ikurriña jasotzeko masta zuena. Beheko solairuan taberna batek ardoak eta likoreak zerbitzatzen zituen.

IBARREKO ADINEKOEI OMENALDIA

1929ko urriaren 6an, Laudioko Ibarreko Eskoletan Zahartzaroari Omenaldia egin zen, udalerrian egun hartan ospatutako hirugarren ekitaldia. Ekitaldian, herriko zazpi adineko omendu zituzten, eta biziarteko pentsioa eman zieten: eguneko pezeta bat, Arabako Aurrezki Kutxak ordainduta.



EUGENIO MORA / ERROKE DEUNAREN KOFRADIAREN ARTXIBOA